



Santa Kruz jaien azken txanpa izango dute gaur Asteasu eta Oresan

HAURRAK ▶ Ekitaldi ugari antolatu zituzten Oresan eta Asteasuko Elizmendi auzoan txikientzat

AMAIERA ▶ Gaur gozatu ahal izango dituzte herritarrek festetako azken ekintzekin ▶ 5



Elizmendi auzoan duatloia egiten zuten jaiak hasi aurretik; argazkian, maila txikiaren proba. N. URBIZU



N. GARZIA

Aerobik Maratoiak 80 lagun elkartu ditu

IBARRA ▶ Ibarrik Misio Taldearen Maratoiak eta Gipuzkoako Aerobik Maratoiaren finalak bat egin zuten atzo kiroldegian ▶ 7

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Inko Iriarte tolosarrak irabazi du V. HITZA Argazki Lehiaketa

Bigarren saria Olatz Irazustabarrena alegiarrarentzat izan da ▶ 4

UZTURRETIK ▶ ANDU MARTINEZ DE RITUERTO

Euskararen geroa



Hizkuntzak elkarren artean komunikatzeko tresnak dira, tresna magikoak esango nuke. Hizkuntza bakoitza mundu berri batera ematen duen leihoa da; bertatik orduarte antzeman gabeko soinu, usain eta koloreak dastatu eta gozatuko ditugu; bizimodu eta jende berria ezagutuko dugu. Kontua da, tresna magiko horietako bakoitza menperatzera iristeko lan eskerga egin behar dela eta horretarako motibazioaren bat izatea ezinbestekoa da (beharra, gogoia eta bihotza, ikasteko grina...)

Hizkuntzen mundu honetan Euskararen kasua bitxia eta zaila da oso. Alde batetik euskaldun guztiok elebidunak gara; orekatuago edo desorekatuago baino denok ezagutzen dugu erdal hizkuntzaren bat, gaztelera edo frantsesa kasu gehienetan. Egoera ho-

nek gaztelera edo frantses hiztunei dezentz zailtzen die hizkuntza ikasteko prozesua; bai baitakite edozein unean bere ama hizkuntzara jota ingurukoekin elkar ulertzea lortuko dutela, eta bestaldetik ia ezinezkoa zaie erabat euskaraz biziko diren tokiren bat topatzea.

Hogeitazortzi urte pasa dira Gernikako Estatutua onartu zenetik, eta honek, garbi asko adierazten du gure komunitatean euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direla eta denok dugula horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea eta administrazioak behar diren neurriak hartu behar dituela euskararen ezagutza bermatzeko.

Euskalduntze prozesuan oinarrietako bat izan den Hezkuntza sistemak erabilitako hiru ereduetakoa bik, Ak eta Bk hain zuzen ere, euskalduntzeko baliok ez dutela garbi asko ikusi dugu (baldintzen arabera D ereduak ezta ere). Orain dela aste batzuk Hezkuntza sailburuak Hizkuntza ereduaren gaineko proposamen berria egin zuen Parlamentuan eta zehaztasun falta egotzi

badiote ere helburua garbia eta nire ustez egokia da: Derrigorrezko Hezkuntza bukatzerakoan (16 urte) gazte guztiak B2 maila (idatziz zein ahoz, adierazmen eta ulermen maila txukuna) gainditu beharko dute; etzazue pentsa erronka makala denik!

Politiko batzuk kareta kenduta, benetako aurpegia azaldu dute; horren sutsuki defendatu duten Estatutuak diotenak bost axola; interesatzen zaie-na bai, baina gustukoa ez dutena...

Aipatutako gaiak garrantzi itzela badu ere, euskalduntzearen gaia ikaragarri korapilatsu eta konplexua da eta ezin da Hezkuntza sistemara mugatu. D ereduaren bakarra izango baliok ere, eskualde gehienetan eskolak ez luke euskalduntzea lortuko: alde batetik ikasleak ikastetxeetan 1050 ordu pasatzen dituzte urtean zehar, hori beraien bizitzako denboraren %14a besterik ez da; bestetik, irakaslearen hizkuntzaren menperatze maila ez da beti nahi bezain egokia (gutxiestu gabe irakasleek euskara ikasteko egindako esfortzu handia) eta gehie-

netan hizkuntzaren erregistro bakarra, akademikoa, besterik ez da lantzen. Gazteak ez dira eroso sentitzen lagunartean, jolasean... euskaraz mintzatuta, ez baitira gai esan nahi duten gutzia eta esan nahi duten eran esateko.

Euskalduntzearen kontu hauetan errealitatera itzuli behar dugu; Euskal Herriako zenbait eskualdetan (ez gehiegitan) euskaraz bizitzeko aukera izango dugu, baina gehienetan eta etorkizun hoberenean, jendeak euskara ezagutu eta jakin (?) arren, gaztelera biziko da. Jendea eroso sentitzen den hizkuntzan bizi da orokorrean eta hori alda ezina da. Sekulako gogoia eta indarra behar da, eremu erdaldun batean jaio, euskara eskolan ikasi eta eskualde erdaldun horretan euskaraz bizitzeko erabakia hartzeko.

Hala ere -eta honetan ezin dugu etsi- euskaraz bizi nahi dugunok euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzen jarraitu behar dugu, administrazioaren aurrean zer esanik ez, baina baita ere mundu pribatuan, indarra eginez euskara erabiltzeko aukera eskaini diezaguten. Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek...

Ez ahaztu.

ASTEKO IRUDIA ▶



ASIER IMAZ



«Erabakitzeko eskubidea» aldarri, Langileen Nazioarteko Egunean

Erredakzioa ▶ Langilearen Nazioarteko Eguna izan da aste honetan Maiatzaren Lehena, hain zuzen ere. Tolosan elkartu zen LAB sindikatua Langileen Eguna ospatzeko, «mahiz eta ospatzeko gauza gutxi izan». Eurria egin arren, batzuen batzuk bildu zi-

ren lehenik manifestazioan eta ondoren Plaza Berrian egindako ekitaldi politiko-soziallean. «Prekaritateak eraildako langile kopuru altua» salatu zituzten, besteak beste, egun honetan.

JON MARTIJA ▶ HERRI IRRATIKO ESATARIA ETA 'LA ULTIMA SEDUCCION' SAIOKO ZUZENDARIA

«Kirola entzun nahi ez duenak gurekin ondo pasa dezake»

Urtzi Urkizu (Berría) ▶ Musika irratsaioak hainbat urtez egiten ibili ostean, beste mota bateko programak egiteari ekin zion Jon Martijak (Tolosa, 1971) duela bi urte eta erdi. Donostiako Herri Irratian gauai ahotsa jartzen die astelehene-tik ostiralera. Entzuleak limurtzen ahalegintzen da *La última seducción* saioarekin, 23:00-etan.

Zer balantze egin dezakezu *La última seducción* programak orain arte egin duen ibilbideaz?

Balantze ona da. Aurreneko denboraldian saioa arratsaldean zen. Azkeneko denboraldi eta erdia gauez aritu gara, 23:00etatik 01:00era. Jorrazten ditugun gaietarako ordutegi aproposa dela iruditzen zait. Feed-back-a nolakoa den jakitea zaila izaten da, baina webguneko foroan jende dezente sartzen da, eta badirudi entzuleei gustatzen zaizkigula gure gaiak.

Zein atal eta kolaborazio ditu irratsaioak?

Asteazkenetan sexologo bat dugu, sexu gaiak jorrazteko: Estela Buendia. Ostegunetan, Minutos solidarios izeneko tartea dugu, gobernu kanpoko erakundeei eskainia. Tarte hori Laura Rouxek gidatzen du. Bestetik, Maider Gorostegi lankideak egunero elkarrizketa bat egiten du. Lehen Vanessa Rodriguezek egiten zuen tartea egiten du orain Gorostegik. Elkarrizketa horiek gehienetan euskal kulturari lotuak izaten dira, euskal artistei batik bat.

Entzuleek parte hartzen al dute?

Gutxitan irekitzen dugu telefonoa, eta gauza gutxi egiten ditugu alde horretatik. Gehienbat webguneko foroan izan daiteke isla nagusia.

Gauetan aritzeak zer ezaugarri ditu, zure iritzian?

Gauean gaiak lasaiago jorratu ditzakegu, beste lasaitasun batekin. Elkarrizketa luzeak egiten saiatzen gara; beste modu batean hitz egiten dugu solaskidearekin, eta hori eskertzen dute. Egunez presa handiagoz eta ordutegiari begira ibiltzen gara irrastian, eta gauean entzuleak adi daude, beste jokaera batekin.

Irratien gaueko eskaintzaren aldean zer eskaintzen du ezberdina *La última seducción*-ek?

Ordu horretan batik bat kirola dago, eta albistegiren bat ere



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

BALORAZIOA

«Balantzea ona da, feed-back-a nolakoa den jakitea zaila izaten da baina webgunean jende dezente sartzen da»

bai. Musika bakarrik jartzen dutenak ere entzun daitezke. Guk batik bat kultura, zientzia eta albiste bitxiak jorrazten ditugu. Hartara, kirola entzun nahi ez duen entzuleak gurekin ondo pasa dezake.

Zu zeu noiz eta nola hasi zinen, bada, Herri Irratian lanean?

Duela hamahiru urte inguru hasi nintzen, musika saio bat egiten. Musika bakarrik jorrazteaz apur bat aspertu nintzen. Gauza gehiago jorrazteko nahia piztu zitzaidan. Gerora, batik bat gaueko saioak egin ditut. Gauez ez dago hainbeste exijentzia gaien aldetik, komertzialtasun aldetik ez da hain garrantzitsua. Orduan, nire kasa ibili naiz, oso gusturara.

Herri Irratiko webgunean txantxa bat baduzue jarria. Entzuleen Damokles ezpata

GAUA

«Saioa gauean izanik gaiak lasaiago jorratu ditzakegu, beste lasaitasun batekin egiten dugu lana»

duzuela gainean, azken saioa izango den arriskuarekin.

Programaren izenburutik dator hori. La última seducción izenarekin iradokitzen da saioak egun bateko kontratua duela. Egun horretan gaizki eginez gero, saioa desagertzeko arriskua egongo litzateke. Horregatik, gauero entzulea limumurtzen saiatu behar dugu, gure indar guztiekin.

Zer egin dezakezu entzule gehiago lortu edo limurtzeko?

Gure lana ahal den ondoena egin gauero. Gai interesgarriak bilatzen saiatu eta ondo landu.

Herri Irratien euskarak duen presentziaren inguruan zer esan dezakezu?

Badaude nahiko saio euskaraz, baina irrattia Gipuzkoatik Arabara eta Bizkaira zabaldu

TELEBISTA

«Telebista erre egiten duela iruditzen zait baina eskaintzaren arabera agian probatuko nuke noizbait»

da. Zaila da oreka aurkitzea irrati elebiduna izanda. Ez dut uste erraza denik elebitasunari neurria hartzea, baina hori da irratiaren apustua. Apustu ausarta eta arriskutsua da.

Telebistatik egingo al zenuke?

Ufa! Telebistan egunero bizarra moztu behar da, kar-kar. Eskaintzaren arabera, agian probatuko nuke. Baina telebistak asko erretzen duela iruditzen zait. Irrastian gustura nago, eta dudaren askatasuna ez dut uste telebistan izango nukeenik.

IBARRA ▶

Danborradari buruzko bilera egingo dute etzi

Festa Batzordeak bilkurara deitu ditu herritarrak, etzi, *Sanbartolomeetan danborrada nahi?* lelopean, Benito Izagirre kultur etxean. Bilerak jaietako jarduera honen etorkizuna izango du ardatz; lehen deialdia 19:00etan egin dute (haurren danborradari buruz hitz egiteko) eta bigarrena 20:00etan (helduen danborradari buruz). Deialdi berezia egin nahi dute «gaiaren garrantzia dela eta».

BERASTEGI ▶

Basurde elkarteak ibilaldi neurtua antolatu du

Basurde elkarteak XV. Ibilaldi neurtua antolatu du, datorren maiatzaren 20rako. Hasiera 07:00etan izango da herriko enparantzan eta 6-8 orduko iraupena izango du. Ibilbidean zehar 5 kontrol eta 3 zerbitzu leku egongo dira. Partaide guztiei diploma emango diete, besteak beste.

IRURA ▶

Osasun zentroa inauguratuko dute etzi

Irurako osasun zentro berria inauguratuko dute etzi, 13:00etan. Aipaturiko zentroa Kulturunearen atzealdean dago kokaturik. Udalak herritar guztiei gonbita luzatzen die inaugurazioan parte hartzeko.



UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA

Mekanika arloan ingeniariak behar ditu.

Makina-erremintan esperientzia aintzat hartuko da.

dtor.ugle@ugleskola.org
Tfnoa: 943/725477
ZUMARRAGA

MUNIZIBALaltzariak

- 500 m² bi solairutan
- Bertako okasiozko altzariak
- Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak:
- Koltxoak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...

Tel.: 943 65 17 61
San Inazio 2
TOLOSA

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

V. HITZA Argazki Lehiaketa, Inko Iriarte tolosarrarentzat


Lau eguneko bidaia irabazi du Errioxara edo Santanderrera, Bidaide bidaia agentziaren eskutik; 2. saria, HITZAko materiala, Olatz Irazustabarrenarentzat



Lehen saria. Moroko Ipar mendebalde kostan arrantzaleak marea jaitsi ostean sareak biltzen atera du argazkia tolosarrak. INKO IRIARTE

Parte-hartzea ere saritua

Irabazleak soilik ez, lehiaketa hau posible egin dutenen artean zozketa bat egin du HITZAK. Hauek dira, hain zuzen ere, Hitzako materiala irabazi duten bi parte-hartzaileak. Argazkiak bidali dituztenen artean, Txema Zabala tolosarra izan da irabazlea. Boto-emaileen arteko irabazlea, berriz, Mari Kruz Gurrutxaga tolosarra izan da. ◀



Bigarren saria. «Korsikan ilargia lehen aldiz zubi honen gainean ikusi genuen». OLATZ IRAZUSTABARRENA

ERREDAKZIOA

Paisaiak beti dira erakargarriak ikusmenerako. Naturak kolore bereziak oparitzen dizkie patxadan une zoragarriena noiz harrapatuko zain egoten diren argazkilariei. Agerian geratu da V. HITZA Argazki Lehiaketan. Izan ere, Inko Iriarte tolosarraren paisaia da aurtengo irabazlea. Aste Santuko oporraldian ateratako argazkiak lortu ditu botorik gehien. «Maroko Ipar mendebalde kostan marea jaitsi ostean sareak biltzen harrapatu genituen arrantzaleak», kontatu zigun berak, lehiaketara argazkia bidali zuen egunean. Bada, argazki honi esker tolosarrak lau eguneko egonaldia irabazi du Santanderren edo Errioxan, Bidaide bidaia agentziaren eskutik.

Bigarren saria, berriz, Korsikatik heldu da. Olatz Irazustabarrena alegiarrak ilargi betearen islada paregabea harrapatu zuen objektiboarekin. Ametsetako paisaia honek eman dio, hain zuzen, zilarrezko domina alegiarrari. HITZAko material sorta irabazi du: mendiko motxila, gerriko poltsa eta kamiseta eder bat irabazi ditu.

Lehiaketa arrakastatsua

Beste behin, arrakastatsua izan da HITZA Argazki Lehiaketa eta irakurle andana izan zarte zuen argazkiak bidali dizkiguzuenak. Behin finalistak argitaratu zirenean ere, dei eta mezu ugari egin dituzue zuen iritziak emateko. Zorionak irabazleei.

IRABAZLEAK ▶

Hauek dira zuek aukeratutako argazki irabazleak:

Lehen saria.

Inko Iriarte (Tolosa).

Bigarren saria.

Olatz Irazustabarrena (Alegia).

Parte-hartzaileak.

Txema Zabala (Tolosa).

Boto-emailea. Mari Kruz Gurrutxaga Lasa (Tolosa).

Harpidedunen txokoa



GAUR Ibarrako garagardo festan afaltzeko zozketatu ditugun 2 afarien harpidedun irabazlea honako hau da :

▶ Joxe Mari Mendiola Aldalur (Belauntza)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

Ostiralean
maitzak 11, 21:00etan,
Rodrigo Leao eta Ludovico Einaudi
bikoteak Leidor aretoan eskainiko duen kontzerturako
2 harpidedunentzako bina sarrera zozketatuko
ditugu!



Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: **943 65 56 95**

AZOKA ▶

Udaberriko giroa izanik, barazki freskoak

PABLO ALBERDI

Atzoko azokan udaberria asko antzematen zen. Barazki zerrenda, baba, ilarra, patata berria edo eta zainzuria osatu zuten besteen artean, eta barazki guztiak egundoko freskotasuna eta itxura ona zuten. Halaere, eta nahiz eta udaberria gainezka egon, izan ziren ere neguko barazki batzuk, porru, zerba edo azalorearen kasu.

Perretxiko zerrenda ere ez zen batere makala izan. 150 kilo ziza, 35 eta 60 euroko tartean salduak, eta mortxela batzuk ere 30 eurotan. Dena dela, ikusi genituen onddo batzuk 32,50 eurotan.

Berdura Plazan ere baratxarako landareen postuetan bizitasuna somatzen zen dagoeneko. Ekoizleak garaian daude landareak lurrean sartzeko, eta horixe bera somatzen da azokan.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Salbia	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Gerbera	12,00	-
Bertako produktuak		
Zizak	35,00	65,00
Kalabaza	1,50	3,00
Porruak	1,00	10,00
Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Txixirioak	2,40	-
Marmelada	3,00	3,60

SANTAKRUZAK ▶

Haurrak izan dira protagonista festetan

Asteasuko Elizmendir duatloia izan zuten, eta Orexan 'Altxorren bila' aritu ziren; gaur, herri kirolak izango dira



Orexan, *Altxorren bila* jokuko azalpenak adi entzuten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Santakruzetan murgilduta, Asteasuko Elizmendir atzo hasi zituzten jaiak eta Orexan haurrentzako jolasekin jarraitu zuten. Elizmendiko duatloieko saioaren garaian eguzkia ateraz zen. Nahiz eta lurra bustita egon, ausartu ziren neska mutilak.

Lurra lehortzen joan zen Elizmendiko festak hasi aurreko goizean zehar: honela duatloia egin ahal izan zuten eskolakoe. Lehenik txikiak hasi ziren, Enrikeren etxeari bira

bat korrika eta bestea bizikletan egin behar zutela. Honetan Markelek irabazi zuen. 1. eta 2. mailakoen artean Ifügok bukatu zuen lehenik (baten bat ere irristatu zen). 3. eta 4. mailakoen artean Peruk egin zuen dena azkarren, eta 5. eta 6. mailakoen artean Unai. Partehartzaile guztiarentzat sariak izan ziren, kirolari apartak direla erakutsi baitzuten.

Arratsaldean Ximonen jaietsierarekin jaiak hasi ziren Elizmendir. Ondoren ere, haurrentzako jolasak izan zituzten.

Gaur, berriz, 11:15ean meza entzun ahal izango dute Santa Kruz ermitan, eta ondorengo hamaiketakoan Laja eta taldearen musikak giroa alaituko dute. Arratsaldean, 18:00ak inguruan sokamuturra izango da, eta berriz ere, Laja eta taldearen saio dotorea. Ximon berriz ere elizako dorrera igo beharko da, festei amaiera emateko. Hau 21:00etan izango da, baina alai bukatzeko Laja eta taldea izango da.



Asteasuko Elizmendir duatloi probetan txikiak ere hartu zuten parte. N. URBIZU

Orexan ere, herri kirolak

Atzo arratsaldean haurrek gozatu ahal izan zuten gehien Orexan. Xiba taldearekin *Altxorren bila* egin zuten herrian barna, haur guztiak hiru taldetan banatuta; ondoren, merienda. Helduenek afaria ere antolatuta zuten denentzat, gero gauean Imuntzo eta Belokiren emanaldia izan zelarik.

Gaur 18:00etan Oiarzungo Girizia elkartearen eskutik herri kirolak izango dira. Sagardo dastaketa ere antolatuta dute, baina 20:00etarako. Herrikoetatik kanpoko jendea ere animatu daiteke honetara, ondorengo bertsoari saioak merezi baitu: Unai Iturriaga eta Sustrai Kolina izango dira Orexan. Ekitaldi honekin aurtengo festei amaiera alai emango diete.

+ TV + @ +

San Francisco, 19
Tolosa
☎ 943 698 126

1. Kontsumoak

Kategoria	Prezioa
Larrea/Verdura	21.420
Internet	1.400
Telefonia Mobilak	21.000
GUZTIRA	43.820

2. Zerga-iruzteak

Zerga-iruzte	Porzentsua
Zerga-iruzte %16 Base imponible %16	26.131,20
BEZa %10IVA %16	11.990,40
Zerga-iruzte %7 Base imponible %7	3.067,40
BEZa %10IVA %7	2.760,60
GUZTIRA	43.950

%50 eko deskontua

Ordaindu erdia bakarrik*

* Kontsumoak eta zerga-iruzteak ez dira kontutan hartzen. Kontsumoak eta zerga-iruzteak ez dira kontutan hartzen. Kontsumoak eta zerga-iruzteak ez dira kontutan hartzen. Kontsumoak eta zerga-iruzteak ez dira kontutan hartzen.

ADUNA ▶ GIZARTEA

IÑAKI GURRUTXAGA (Berria)

A ita siesta egitera joaten zenean izaten zen harri-tarako aukera. Ezkutuan aitari gerrikoa kendu, anaia egindako hormigoizko harria hartu —80 kilo ingurukoa—, eta hantxe, gora eta behera, jo eta su, harik eta armairuan zeuden elastiko guztiak puskatu arte. Gero, noski, amaren errietak entzun behar. Halaxe gogoratu ditu Iñaki Gorostidi Astigarragak (Aduna, 1955) harriak altxatzen hasi zeneko garaiak.

Lehen futbol konturik izaten ez zenez, eta bai aitaren eta bai amaren familiaren aldetik herri kiroltarako joera bazegoenez, parean zegoenari heltzen zitzaion. Harriari, kasu honetan. Hamalau urterekin, ehun kiloko zakuak jasotzen zituen bizkarrera, eta orduan ikusi zuen harri-jasotzaile modura zer-bait egin zezakeela. «Harria jasotzeko, indarra behar da, hori lehendabizi, baina zaletasuna, gogoa eta entrenamendua ere bai», adierazi du Gorostidik.

Hemeretzi urterekin, berrehun kilokoak ere altxatzen zituen. Baina soldadu joan behar izan zuen, eta itzuleran, harria utzi eta boxeolari ekin zion. Profesional mailan aritu zen lau urtez. 33 borrokalditik 16tan atera zen garaile, 6 balio-gabetzat jo zituzten, eta 11tan galdu egin zuen. Boxeoa utzi, eta harriari heldu zion berriz. Batez ere, erakustaldietan aritzen zen, eta baita errekorra jarri ere. «185 kilokoa jaso nuen, esku bakarrarekin. 77 kilo nituen. Beraz, nire pisuaren bikoitza gehi 31 kilo gehiago jaso nituen». Egun berean, 200 kilokoa jaso zuen, bi eskurekin. 1982. urtea zen.

Langintza eta ogibide

Halaxe pasatu ziren urteak, eta zenbait lesio tarteko, harriak jasotzeko harriak lantzerako pasatu zen. Hamazazpi urte badi-ra zeregin horretan aritzen dela. «Harri handiak eta guk geuk konpontzen genituen, eta horrexek piztu zidan harria».



Iñaki Gorostidi Adunako Apakuntza baserrian duen tallerrean, harriz inguratuta. JON URBE/ARGAZKI PRESS

Harri handitik txikira

Harri-jasotzaile izatetik harriekin jolas egitera eta handik bizimodua ateratzera pasatu da Iñaki Gorostidi eskulangile adunarra

Apakuntza baserria, bere jaiotetxea, du lantegi. «Herriko apaizak esan zidan apaizgintzatik datorkiola izena», esan du irribarre pikaroz. Izena aldatzekotan, hargintza jartzea egoki litzateke; izan ere, ehunka harri topa litezke Gorostidiren tailertxoan.

Hastapenetan, harri-jasotzaileen harri miniaturazko erreplikak egiten hasi zen, baina denborarekin, eskaintza zabaldu du. Euskal Herriko mapak egin ditu, ordulariak, kirol txapelketarako trofeoak eta beste herri kirol batzuetako langintzen erreplikak. Azken

boladan, berriz, enpresek lanteko opariak egiteko eskatzen diote enkarguz, eta ezkongaiak ere hurbiltzen zaizkio, gonbidatuei bestelako opariak emate aldera. «Horrek bultzada dezentekoa eman dio lanbideari», zehaztu du.

Haren harriak kutunena zilindro itxurako erreplika bat da, baina gehien saltzen duena errekorreko harriaren erreplika dela nabarmentzen du. Mieltxo Saralegik jaso zuen 329 kiloko harriaren erreplika, hain justu ere. «Jendeak hori nahi izaten du». Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Iruñeko zenbait

dendatan salgai dituzte Iñaki Gorostidiren bitxiak, eta piezari salduenetakoa horixe izaten dela esaten diote dendariak.

Euskal Herriko mendietan eta malkarretan kareharria da nagusi, eta horixe erabiltzen du Adunakoak miniaturazko erreplikak egin ahal izateko. «Markinako eta Itziarko harrobietatik ekartzen dut, batez ere». Granitoa ere erabiltzen du, baina gutxiago. Harria puska handietan ailegatzen zaio, eta zerra berezi bat erabiltzen du harria mozteko. Behin nahi duen bolumena eman dione-

an, egin nahi duen irudia marrazten du harrian bertan, eta punta zizel pneumatiko bat erabiliz, forma ematen dio piezari. Ondoren, margotu, lehortzen utzi eta azken ukituak ematen dizkio.

Eguberriak pasatu eta udaberria heldu arte, etxean aritzen da lanean. Plaza gutxiago izaten ditu. Baina hurrengo bederatz hilabeteetan azokaz azoka ibiltzen da, aste eta jai, egokitzen den moduan. Emaztea eta semea ere aritzen zaizkio laguntzen, eta horrek poza ematen dio zaletasunetik ofizioa sortu duen eskulangileari.

TOLOSALDEA GORRIKAKO L. R. INSTITUTUA
INSTITUTO SUPERIOR DE FORMACIÓN PROFESIONAL TOLOSALDEA

JARDUNALDI IREKIA

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatutako guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak ezagutzeko bisita gidatua eta bere eskaintza akademikoa.

Eguna: Osteguna 10
Ordua: 18:00etatik 21:00etara
Informazioa: Mugikorren bidez:
SMS: TOLOSALDEA - IDATZI 5533

www.tolosalde.com • Tel.: 943 65 11 47

OREXAKO UDALA

ORRAL PIRAGIA
ORRAL MERRIA

ONDO PASA OREXAR GUZTIAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IBARRA ▶ KIROLAK

80 lagun elkartu dira Aerobik Maratoian

Gipuzkoatik ez ezik, Nafarroatik ere etorri ziren atzo egin zuten Elkartasunaren Aerobik Maratoian parte hartzeko



80 pertsona inguru bildu ziren atzo Ibarrako kiroldegian. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Atzo 12. Aerobik Elkartasun Maratoia egin zuten Ibarrako kiroldegian eta bertan aerobik barruko bi ekitaldik bat egin zuten: Ibarratik Misisio Taldeak antolatutako maratoiak eta Gipuzkoako Aerobik Maratoiaren finalak.

80 pertsona inguru izan ziren atzo Ibarrako kiroldegian elkartu zirenak. Gipuzkoako hainbat herritatik ez ezik, Nafarroatik ere etorri ziren Ibarrako maratoi honetara. Xabier Ayerza antolatzaileak azaldu duenez, «parte-hartzaile kopurua urtetik urtera jaisten doa. Hasiera batean jende askok egiten zuten aerobika, baina duela urte batzuk kopuru horrek behera egin zuen. Azken batean gaur egun gero eta

ekintza gehiago daude jendearen aisialdirako».

Parte-hartzaileak 4 mailatan lehiatu ziren: seniorrak, gazteak, helduak eta begiraleak. Maratoiak hiru ordutako iraupena izan zuen eta amaieran bi txapelketen irabazleak saritu zituzten.

Izenak adierazten duen bezala, Elkartasun Maratoiaren helburua Misisio Taldeak dituen proiektuei laguntzea da. «Soberan ateratzen den dirua Ibarrako Misisio Taldeari ematen diogu, elkarte honek dauzkan proiektuetarako».

80 parte-hartzaileek 5 koreografia dantzatu zituzten, eta koreografia bakoitza monitorea batek zuzendu zuen. Orotara 5 izan ziren begiraleak, eta hauek koreografia zuzentzeaz gain, dantzarien maila epaitu

zuten. «Koreografia nola jarraitzen duten, horretan erreparatzen dute batik bat begiraleek», dio Ayerzak.

Gehienbat, emakumezkoak izan ziren atzo Ibarran bildu zirenak, lau mutil inguru besterik ez baitzeuden. «%4a inguru gizonezkoak izaten dira. Badi-rudi dantzaren mundua emakumezkoek nahiago dutela».

Maratoiaren hastapenak

Aurtengoa aerobik elkartasun maratoiaren 12. edizioa izan da, baina hasiera batean beste helburu batzuekin antolatzen zuten. «Maratoia antolatzen hasi ginenean, inguruko kiroldegietako jendea elkartzen ginen, ikastaroari bukaera emateko. Ikastaro bukaerako jaialdi bat bezala izaten zen».

IBARRA ▶ AISIA



Lau egunen ondoren, gaur amaituko da Garagardo Festa

N. Garzia ▶ Gaur amaituko da Ibarrako Garagardo Festa. Lau egun hauetan, garagardo ezberdinak dastatzearaz gain, bertara hurbildu direnek afaltzeko aukera ere izan dute. Antolatzaileek azaldu duten bezala, «ostegunean jendea egon zen afaltzen, baina eguraldiak ere ez digu gehiegi lagundu». Urtero antolatzen dute Garagardo Festa eta beti lau egunetako iraupena izaten duela adierazi dute antolatzaileek. Aurtengoa, omenaldiak burutu dituzte inaugurazioaren onean, Ibarrako Unai Otaño aizkolariari, Maite Artola kazetariari eta Eneko Ariztaren Lagunak Kultur Elkarteari. N. GARZIA

TOLOSA ▶ POLITIKA



EAJren lantaldea aurkeztu dute udaletxean

N. Garzia ▶ Herenegun Tolosako udaletxeko Ekitaldi Artoa aukeratu zuten EAJren hautagai-zerrenda aurkezteko. Aurkezpena 18:00etan egin zuten eta Jokin Bildarratzek, Tolosarako alkategaiak, datozen hauteskundeetarako ezarri dituzten helburuak azaltzeaz gain, bere lantaldea osatzen duten kideak aurkeztu zituen: Olatz Peon, Joxelu Andueza, Yurre Peñagarikano, Jokin Azkue, Jon Aldazabal, Ainhoa Etxeberria, Aitzol Arozena, Joxe Agustin Arrieta, Begoña Tolosa, Itxaropena Urkiola, Andoni Imaz, Mikel Agirrezabala, Iban Ormazabal, Miren Ezkiaga, Itziar Muñoa, Jose Maria Agirre. HITZA

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 635 74 52 91 edota 943 69 43 13ra.
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943691933.
Gidariak. Gidariak erakunde publikoetarako. 699 134586.
Harreragileak. Harregileak udalebeetarako. 943 444866.

hilberria ▶



Iñaki Etxabe Etxabe

Bizitzan alaitsu gaur arte aurrerantzean hirekin izango gaituk agur lagun maite

Hire koadrila



ZARAUZ, 2007ko maiatzaren 6a

hilberria ▶

Iñaki Etxabe Etxabe

Gure artean izango diagu hire indar eta umore hori, eta irri egingo zihogagu haizeari hire presentzia ekarriko ziguk eta, betiren beti. Adiorik ez Iñaki

Hire ilobaic: Iñigo eta Paula, Jon, Haritz eta Iratxe, Iker eta Nerea, Mikel, Christopher eta Kato, Amaia eta Katrin



ZARAUZ, 2007ko maiatzaren 6a

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko maiatzaren 6a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **15** hotzena **12** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez **HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** 902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amasa. Loatzoko XV. Igoera-Jaitsiera (631 metro) izango da Amasan 10:30ean. Izen-ematea, doan. Sariak: 120 euro eta txapela, 80 euro eta 60 euro eta zozketa. Loatzen hamaiketakoa izango da publikoarentzat.
Anoeta. Ezker abertzaleak Anoetan hilaren 12an antolatu duen txekor jaterako txartelak salgai daude Itzuli, Arkupe, Haizea eta Goikoetxea tabernetan, Tolosako Rakun, Villabonako Iratzen, Ibarrako Atarin eta Alegiako Ixkinan, 22 eurotan (langabetuek 15).
Zizurkil. Bertso eta musika afaria Eñaut Agirre eta Amaia Agirre eta Jexux M^a Irazu bertsolariarekin 19an 21:00etan Zentroan. Txartelak salgai 15 eurotan Zentroan eta Aurrrera tabernan.

ZINEMA

Tolosa. *La vida de los otros* filma ikusgai Leidorren, 19:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.

Bihar
Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegana* (errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herrian barna pedalei emanez

ALEGIA ▶ Languarre Txirrindulari proban Caja Ruralekoak gailendu dira, baina Anoetako Ales Goigoganak irabazi zuen infantiletan

NEREA URBIZU

Languarre Txirrindulari proba egin zuten atzo Alegiko kaleetan zehar. Alebinak eta infantilak aritu ziren pedalei ematen. Zortea izan zuten eguraldiarekin, ez baitzuen euririk egin.
 Tolosaldeko txirrindulari eskolek hartu zuten parte, eta alebinen mailan Caja Ruraleko Ander Alonso, Andoni Alustiza eta Unai Goikoetxea izan ziren lehen hirurak. Maria Ibañez, berriz, lehenengo neska.
 Infantilen mailakoan Anoetako Ales Goigogana izan zen garailea eta atzetik Jokin Sarasola



Alebinak, Alegiara sartzen, Altzoko bidegurutzetik igarotzen. N. URBIZU

(Caja Rural) eta Imanol Iraola (Andoaingo) izan ziren. Nesketan lehena Irene Usabiaga izan zen (Caja Rural).
 Aipatzekoa da Languarre Txirrindulari elkarteak antolaturiko eskolarteko proba honean Alegiko Xabier Contrerasi ere saria eman ziotela, herritarra zelako eta bere lehen lasterketa izan zelako. Antolatzaileek esan bezala, «maila haue-tan antolaturiko lehenengo lasterketa izan da», baina afizionatu mailan urte askotan zehar egin dituzte probak.
 Alebinek 5 kilometro eta erdi egin zituzten, infantilek 13 kilometro eta 200 metro inguru.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Albizturko Goiko-Errotako Juanitak 87 urte betetzen ditu beti bezain umore onarekin.

ZORIONAK
 Joxe eta Monika. Urrezko bihurtu da zuen haremana. Elkarren babesean eta errespetuz elkar maitez, zarete gure eredu ta maite zailuztegu bihotzez.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen txokoa

HITZAKo harpidedunen artean **Astelehenean 17:00etan Beotibar pilotalekuan** jokatu diren pilota partiduetarako sarrerak **zozkatu** ditugu! **Hauek dira irabazleak:**



- ▶ Gorka Gaztelumendi (Tolosa)
- ▶ Lourdes Amondarain (Leitza)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

Galarza V - Nalda III
Del Rey - Laskurain

CAPELLAN - LASA III
CHAFEE - GOÑI III

Zubieta - Arruti
 (2. mailako Eskuz Banakako Txapelketa)